



UDAL MENDIETAN BAZKATZEN DUTEN ABEREEN ERREGISTROA: 2022 URTEA

Arabako Lurralde Historikoko mendien erregimena arautzen duen Foru Arauaren arabera 2022 urte naturalean (urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra), udal mendietako larreak aprobetxatu nahi dituzten abeltzainek, udal bulegoetara etorri eta eskaera egin, hauek kontuan hartuta:

- Arabako Foru Aldundiko Abere-Erregistroko agiria ekarri behar duzu.
- Zehaztu horietatik zeintzuk izango diren udal mendietan ibiliko direnak.
- Inprimakia betetzea.

AURKEZTEKO EPEA: 2021.11.5arte.

OHARRA: PAC 2022 DIRULAGUNTZA LORTU NAHI DUTENEK ESKAERA 2021EKO AZAROAREN 5ERAKO EKARRI BEHARKO DUTE.

Ulertuko da adierazitako epean aipatutako dokumentazioa aurkezten ez baduzu, udal mendien aprobetxamenduan interesatuta ez zaudela, eta beraz, kasuan kasu, zure abereak udal landetatik kendu beharko dituzu adierazitako datarako. Bestela legearen arabera dagokion isuna jartzeari ekingo zaio, Arabako Lurralde Historikoko Mendien erregimena arautzen duen Foru Arauaren arabera.

Larren aprobetxamendua martxoaren 26ko Mendiei buruzko 11/2007 Foru Arauaren V. tituluko V. kapituluaren arabera egingo da.

Jakitera ematen da ahuntzak ez direla onartuko, baimen berezia izan gabe.

Ezagutzera ematen da, interesdunek jakin dezaten.

Aramaion, 2021eko urriaren 8an

Lierni Altuna Ugarte
Aramaioko alkatea-udalburua

